BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5783

236/2011 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako sozietate publikoetako zuzendaritza-kideen zerrenda onartzen duena.

Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak Baltzu Publikoetako eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako zuzendaritza-kideen estatutu pertsonala arautzen du, eta 3. artikuluan ezartzen duenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak baltzu horietako zuzendaritza-kide publikoen zerrenda onartuko du dekretu baten bidez. Bestalde, zuzenbide pribatuko erakunde publiko edo baltzu publikoak zein saili atxikita dauden, sail horretako titularrek egingo dute kide horiei buruzko proposamena. Horrez gainera, artikulu berean ezartzen denez, Gobernu Kontseiluan aurkeztuko diren proposamen horien oinarri izango dira honako hauek: baltzu publiko edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko zuzentza-organoak edo administrazio Kontseiluak urtero gai honetaz hartuko dituen erabakiak; beraz, dekretu horretan ezarritakoari begira, erabaki horietan ondo zehaztu beharko da ea zein kargu edo postu dagoen sailkatuta zuzendaritzako kide modura.

Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak eskatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko azaroaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako baltzu publikoetako zuzendaritza-kideen zerrenda onartzea; dekretu honekin batera doan eranskinean jasotzen dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen da azaroaren 2ko 282/2010 Dekretua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako baltzu publikoetako zuzendaritza-kideen zerrenda onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

ERANSKINA, AZAROAREN 5EKO 236/2011 DEKRETUARENA

- SPRI SA: zuzendari nagusia.
- Sprilur SA: zuzendari nagusia.
- Energiaren Euskal Erakundea EEE: zuzendari nagusia.
- Euskadiko Hidrokarburo Baltzua SA: zuzendari nagusia.
- Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa SA: zuzendari nagusia.
- Basquetour SA: zuzendari orokorra.